

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Urriak 13, 36. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



IV.

Liburu Azoka

Joseba



**MODELO
BERRI-BERRIA**



1.1 MUGARRI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
--------------------------------------------------------------	--------

12 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: Willow.
- Monterronen: Eguerdiko ordu batean, Elgoibarko Udal Musika bandaren kontzertua.
- Udalaitz eguna: 8,30etan irteera Udala plazatik, eta 11etan Meza Santua Udalaitz puntan.
- Goardiako farmazia: A. Azkoaga, Ferrerías.

13 OSTIRALA

- Zinea: Alai: Willow.
- Eskoriatzan: Eduardo Gorosarriren mendeurrena. 12etan Meza. 12,45etan, Gorosarriri eskainiko zaion plakaren erakusketa; bukatzeko, 1,45etan Txistulariak Eskoriatzako plazan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

14 LARUNBATA

- Zinea: Alai: De profesión duro. Novedades: "Pesadilla en Elm Street 4", 5etan, 7,30etan eta 10,30etan.
- Eskoriatzan: Gaueko 9etan, San Pedro Parrokian "Donostiako Goi mailako Udal Kontserbatorio"ko Txistularien kontzertua.

— Garibai Etorbidean: Arratsaldeko 6etan, umeentzako antzerkia

— Goardiako farmazia: A. Irizar, Erguin.

15 IGANDEA

- Zinea: Alai: De profesión duro.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

16 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: De profesión duro.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalena.

17 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: De profesión duro.
- Monterronen: Mahai ingura, 7etan. Gaia: "Soldaduzkaren aurrean zer egin?".
- Goardiako farmazia: M. Morales, San Andres.

18 ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: A. Azkoaga, Ferrerías.

19 OSTEGUNA

- Amaia antzokian: 8,30etan, "Ghotic" filmea.
- Monterronen: 7etan, Leopoldo Paneroren hitzaldia. Gaia: "La canción de amor y muerte del Alférez Cristoph Rilke".
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

AZOKA

Liburu azoka: Garibai etorbidean, 18 etxola Urriaren 9tik 15era. Goizean, 11,30tik 2etara. Arratsaldean, 5,30tik 9,30etara. Liburu mota ugari aurkitu ahal izango ditugu: Nobelak, enziklopediak, komikiak, antzerki liburuak, diskak...

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Ruth Otaduy

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 4.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



La Pilule

Hogeitabost urte dira gure artera iritsi zenetik. Garaiko gizartean lehergailu bezala erori zen, tabu erlijioso eta politikoak eguneroko ogiak genituen eta. Harrez geroztik pixkat aurreratu gara eta orduan moralaren kontrakotzat harturikoak lehen tokia irabazi du sorketaren krontrako metodoei dagokienez. Pildorari buruz ari naiz, jakina.

Urte txarrak bizitzen ari ginen. Estatuak saritu egiten zuen familien hazkunde azkar... eta patriotikoa. Espainiak españolito gehiago behar omen zituen kanpotik zetorkiokeen erasoari aurre egiteko eta zegoen zulo ilun eta txirotik burua atera ahal izateko. Beraz, debekatuta zeuden giza hazkundearen aurkako bitartekoak. Bestalde, pildora eta sexua bat omen ziren. Eta badakigu, sexua -deabru eta munduarekin batera- gu gizakiok paira genitzakeen pekatu-rik larrienak genituen.

Mugaz bestaldean askozaz errezago lor zitezkeen antisorgailuak; hego euskaldunok -teoriaz behintzat- aiseago eskuratzen genituen, erabiltzearen sekretuak gehienetan ezezagunak zitzaizkigun arren. Be-

raz, "la pilule" kontrabandoko gai bihurtu zen.

Desinformazioa maila guztietara ailegatzen zen, antisorgailuen gainerako zabalkundeak legeek zigor zezaketelarik. Mediku adituak ere ez ziren pildoraren nolakotasunak azaltzera ausartzen. Sendagile batzuk prozesatuak izan ziren eta profesioan bildurra nagusia zen. Hori horrela zelarik, inork gutxik bideratzen zuen egokiro antisorgailu horren ibilkera. Medikuek hitz joko ulergaitzak egin behar izaten zituzten justiziaren sare erruki-gabeen ez jausteko, errezetak literatur lehiaketarako prestatuak babilira bezala idazten zilerarik.

Poliki poliki farmakoaren hedapena haundiagotu egin zen. Hala ere, 1978rarte indarrean jarraitu zuen debekuak. Orduantxe hasi dira medikuak errezetetan "semealabarik ez edukitzeko" idazten. Baina, egiari zor, berrikuntza gehienekin gertatzen den bezala pildoraren hutsak ez ziren gutxi izan. Garai xamarratu zen irristaden ehunekoa, sendi askotan ustekabe galantak bizi izan zituztelarik.

Jose Mari Velez de Mendizabal

inpresio ona



inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

Kilometrotako autopilaketa

Kilometroak 89 egun zoragarria izan zen berebidez goiz, oinez edo bizikletaz joan ginenontzat. Hamarrrak baino beranduago mugitu zirentzat, ostera, gauzak ez ziren hain ederrak izan, bideetan egin ziren pilaketak medio.

Arazoa ez zen antolatzaileena izan, behin Ofiatiko eremuetan sartuz gero, gauzak oso ondo joan bait ziren. Arazoa gure errepideetan egon zen. Argi eta garbi geratu zen zein azpiegitura eskasak ditugun. Esker-rak egun hartan jendeak pazientziaz hartu zituela gauzak, bai goizeko ileretan eta baita iluntzeko orduetan ere.

Zer gertatuko litzraiguke inoiz edozein hondamenek behartuta errepideak erabili behar izango bagenu alde egiteko? Seguruenik ezin izango ginatke zulo honetatik irten eta histeria, eta izuikarak eraginda errepideetan utziko genuke larrua. Esan diezagutela bestela Babes Zibilekoek nola konponduko luketen egoera hori.

Kilometro egunak baieztatu baino ez zuen egin inguru hauetan barrena egunero ibiltzen garenok aspaldi susmatzen genuena. Horretarako ordaintzen dugu hainbeste zerga?

J.A.M.

Kaixo Arrasate eta inguruko irakurleok

Oporrak igaro eta aspalditik nenbilen Arrasate Press aldizkari honetara idazteko asmoaz. Esan eta egin, biderik laburrena. Uztailean hasi eta noizik behin Landa edo Ullibarri Ganboako urtegi, pantano edo delakora joan izan naiz. A zer nolako narda baso eta zelaietan! dena papelez josita, garagardo-latak... eta horrela paletekada handia egin arte. Ba al dugu lotsarik honelakoak egiteko? Batek baino gehiagok, honez gero, txakurra botata eukiko leuke. Baina, berdin itsasaldean, kostaldean; osterantzean, joan zaitezte Debatik Zumaiarako bidetik ibilalditxo bat egitera eta laster konturatuko zarete sortzen dugun kaltea ez dela "euli kaka". Zabortegia sortu dugu.


Izan gaitezen kontsekuente gure buruaz eta bazterrak zaindu eta garbitu. Natura denona delako zain eta maite dezagun denon ondare eder hau.

Naturazale batek

Kaixo:

Zuen errebista **ARRASATE ESPRES** ezagutu eta gustatzen zaidanez nire etxera bidaltzea eskatzen dizuet.

Eskerrik asko.



gili gili
Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**
Iturrioz 14, ARRASATE


HIRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

Zubi sareta
OSO GAUZA
BEREZIAK
Zerkaosteta 8

**Hilbera
kafetegia**
Uribarri Etorbidea
ARRASATE

TAKUN
Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerias, 23

Zer deritzezu alkohola eta tabakoaren aurka Udalak hartu dituen akordioei?



Gerardo Mendizabal
(ikaslea)

Txarto, gazteek zerbait lortu gura badute samur aurkituko dute, beraz ez dut ondo ikusten gazteei alkohola eta tabakoa ez saltzea.



Leire Irazabalbeitia
(ikaslea)

Ez ditut ondo ikusten, gazteok libre izan beharko ginatke nahi duguna aukeratzeko.



Ascensión Teso
(etxekoandrea)

Ondo ikusten ditut, dena dela edozein lekutan aurki dezakete tabakoa edota alkohola.



Javier Urrutia
(jubilatua)


Beno, nik 60 urte daukat eta dudak ikuspegitik ondo ikusten ditut Udalak hartu dituen erabakiak.

LENIZ


AUTO ESKOLA

ARRASATE TA ESKORATZA.n

TEORIKA, rako



PRAKTIKA, rako



Memesa

79 42 22

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko
Insektu narraztiak akabatzeneko,
- arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA
Erguin kalea 11, BIs. 3. ezk.

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



J. M. Heriz

axuleiuak

Porcelanosa, Azuvi, Pamese...
Otalora Lizentziatua. Arrasate

ARRASATE PRESS astero zuekin

“Ez dakit zergatik Arrasaten ez diren horrelako modelo erakusketak antolatzen, kontuan hartuta han dagoen komertzio mota. Arrasatek izan beharko luke horrenbesterako ahalmena. Akaso denak bilduko dituen pertsona falta zaie. Horrelako erakusketak oso eraginkorak dira herriko merkatarientzat. Ez ahaztu, gainera, parte hartzaile gehienak herrikoak direla, amateur hutsak”.

(Isabel Hurtado, Bergarako Txibiston eratu-tako modelo erakusketaren antolatzaileak)

“Nafarroako EE, betidanik, autobiairen aldekoa izan da. Ezin da, inolaz ere, biolentoen jokaera onartu. Egia esan ETARI autobia egitea ala ez, ez zaio axola, berarentzat bortxakeriarekin jarraitzeko aitzakia baizik ez da”.

(Koldo Martinez, EEko Nafarroako hautagai-buru arrasatearrak “Hemen” astekarian)

“Gu aske izateko jaio gara, ez makurtzeko, baina jakina da batzuk lau ematen dutela eta beste batzuk lau mila, eta horiek gartzelan daude. Niretzat preso politikoa izatea harro egotekoa da gaur egun. Haseran denok ginen abertzale, gero batzuk konstituzioa sinatu digute, beste batzuk etsai handienekin elkartu dira... Jende askok nortasuna galdu du”.

(Iñaxio Kortabarria, futbolari ohi arrasatearrak “Argia” astekarian)

“Bainan zertako Oñati, zertarako ere urriaren 7-a? Hain zuzen ere Euskaltzaindiak proposatu du Oñatiko Unibertsitate hau, badakielakotz 1918ko irailaren 5ean bildu zelarik Eusko Ikaskuntzaren lehenbiziko kongreso, hemengo gela batean erabaki zela Euskaltzaindiaren sortzea eta izendatu zirela lehen lau euskaltzain osoak: Resurreccion Maria de Azkue, Arturo Campion, Julio de Urkijo eta Luis Eleizalde. Oñati da beraz, Euskaltzaindiaren sort-herria eta Oñatiko unibertsitatea Euskaltzaindiaren sehaska”.

(Jean Haritschelhar Euskaltzainburuak Oñatiko Unibertsitatean).

Zertan aldatu da Udal Zergak batzeko legea?

Udal Zergen legea, Foru Aldundiak Uztailearen 5ean onartu zuen legediaren ondorioz aldatu behar izan dugu.

Udal zergak orain arte b' taldetan bana zitezkeen, Zerga izena jasotzen zutenak eta Tasak deiturikoak. Orain aldatu egin da eta Zergak, Tasak eta Salneurri Publikoak ditugu. Zergak, legeria berri hau onartu arte hamar ziren. Gaur egun, hamar horiek bost zergatan biltzen dira. Ondasun higiezin zerga, lehengo hiri, nekazal eta orube zergak batzen dituenak; Iharduera ekonomikoen zerga, lehengo baimen fiskalak, publizitatea eta radikazioa batzen dituenak; trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga, gainbalioaren zerga eta eraikuntza, obra eta instalazioen zerga ditugu. Lehen hiru zergak derrigorrezkoak dira, Udalak nahi eta nahi ez jaso behar dituenak dira. Beste biak potestatiboak dira, berauek jasotzeko era arautuko duen Udal akordioa behar dute.

Tasa eta salneurri publiko bereizteko, tasak Udalarri derrigorrez eskatu behar zaizkionak dira eta Udalak bakarrik eskaini ditzake, zaborrak esaterako. Salneurri publiko bietako baldintzaren bat betetzen ez dutenak dira. Tasa garrantzitsuenak, hirigintza baimena, irekitze-lizentzia eta zaborren tasa ditugu. Salneurri publikoak berriz bitan banatzen dira, zerbitzu eskaintzatik, ura, estolderia etab. Eta salneurri publiko hiri zorua erabiltzeagatik, tabernetako terrazak, esaterako.

Esan genezake, hiritarrek ez dutela gehiago ordaindu beharko, lehengo berak bait dira, baina beste era batez egokituak.

*Kepa Undagoitia
Errenta eta exakzioen teknikaria*



Arrasatearrok adi!

ARGA altzariak

eraberritze-obrak direla eta, beherapen handiak prezioetan

Zerkaosteta 15, Tfnoa: 79 07 76 Arrasate

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalca, 8
ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Arrasate 89

LEHIAKETAK

BERTSO
PAPERAK

IPUINA

POESIA

KOMIKIA

BIDEOA

ARGAZKIA

DIPTIKOAK ETA INFORMAZIOA

AEDn: Pablo Uranga 4, Behea. Tfnoa: 79 54 46

**SARI GARRANTZITSUAK
ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!**


Lanak aurkezteko epea: 1989ko azaroaren 1a

AEDk antolatuta Arrasateko Udalaren laguntzaz



URRIAREN

PROGRAMAZIOA



L. M. Panero

19an, Hitzaldia

Arratsaldeko 7etan Monterronen

LEOPOLDO M^a PANEROren hitzaldia.

*"La canción de amor y muerte del alférez
Cristoph Rilke"*

19an, Zinema

Arratsaldeko 8,30etan Amaia antzokian

GOTHIC. Zuzendaria: *Ken Russel*.

26an, Zinema

Arratsaldeko 8,30etan. Amaia antzokian

"Sammy y Rosie duermen juntos"

Zuzendaria: *Stephen Frears*

21ean, Antzerkia

Gaueko 10,30etan Amaia antzokian

Teatro Gasteiz

"TODAS TENEMOS LA MISMA HISTORIA"

28an, Kantaldia

Gaueko 10,30etan. Amaia antzokian

IMANOL.

Muga beroan

ARRASATEKO UDALEKO KULTURA BATZORDEA



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Inmobiliario propietatearen agenteak, inmobiliaria honetan begindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea, 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza, gestio eta salmenta-zerbitzuak eskaintzen dizkizugu

Maalako Errabala, 6. 1

LODITASUNA eta ZELULITISA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobetxa zaituz gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ



ARQUERO
Aniak
ERAIKUNTZAK

Araba Etorbidea 40, Behea
Tfnoa 79 01 51 Aretxabaleta

prentsaren begia

OSTIRALA 6

- CORREO:** "Arrasatek eta «Maritxu Kajoi»k gau honetan Euskadi osoko 'txikiteroak' bilduko"
- DEIA:** "Gaur ospatuko Maritxu Kajoi, txikiteozaleen patronaren jaia."
- DV:** "Gaurko eguna Maritxu Kajoi herri-jairako"
- EGIN:** "Maritxu Kajoi prest miraria errepikatzekeo"
"Maritxu Kajoiaren ohorez eingo den jaixen asto karrerie be asmau dabe aurtenguen."
- GAUR E.:** "Arrasatek gaur ospatuko Maritxu Kajoi eguna"

LARUNBATA 7

- CORREO:** "Deba Garaiko alkateek Osasun-kontseiluak bilerara deitzea espero ospitalearen geroaz berba egiteko"
- DEIA:** "Bihar korrituko XI Herri Kross-a"
- DV:** "Arrasatek gaur antolatuko «Garvais Memoriala» erlojuz kontrako lasterketa"
- EGIN:** "Astelehenetik aurrera Liburu Azoka Gariabain"
- GAUR E.:** "Besaide Elkartek mendi-ibilaldia antolatu"

IGANDEA 8

- CORREO:** "Maritxu Kajoik teknologiarri aurre egin eta 'gourmetteak' pozik utzi edari ugariz eta ondo jantziz"
- DV:** "Oraingoan miraririk ez Maritxu Kajoi egunean"
- EGIN:** "Maritxu jai bihurtu berriro, mirariak kale egin arren"

ASTELEHENA 9

- CORREO:** "Aldi baterako kontratuekin dauden 50 pertsona baino gehiago Arrasateko Udal organigraman sartuko hil honetan"

ASTEARTEA 10

- CORREO:** "Ur-Partzuergoa eta errepide-plana Deba Garaiko ardurarik handienak"
- DEIA:** "Antonio Fernandez galziarrak kross-a irabazi"
- DV:** "Ia 100 atletak parte hartu Arrasateko XI. Herri Kross-ean"
- EGIN:** "Udalak aldi baterako 53 langile kontratatu"
- GAUR E.:** "Ostegunean Udalaiz Eguna ospatuko Arrasaten"

ASTEAZKENA 11

- CORREO:** "Antolatzaileek diotenez, Arrasate, Eibarrekin batera, herriz herri doan Liburu Azokaren kokagune garrantzitsuena"
- DV:** "Udala 5 Gazte eta Haur biblioteka prestatzen ari Arrasateko Auzoetan"
- EGIN:** "Bihar ospatuko da Arrasateko HBren jaiegun erreibindikatioa"
- DEIA:** "Bihar ospatuko Udalaiz Eguna"
- GAUR E.:** "Liburu Azoka igandera arte zabalik"

Usteak uste...

Ehiztariak beren eskopetak garbitu eta prestatzen ari diren honetan, partidu politikoen militantek lanean ari dira ea nork eskaintzen duen sloganik politena, kartelik ederrena, pankartarik ikusgarriena, dena U-29an oinezkoon botoak eskuratu guran.

Altzairu hilkorren usainak animaliak uxatzen dituen modura, partiduak konturatu dira mitinetara usaimen galdutako lau katu baino ez direla joaten. Horregatik kanpaina honetan ez du ematen Amaiakok lan handirik izango dutenik lokala alokatzeko. Seguruenik hemen ez da mitinik egingo. Hitzaldiak, afariak, autobus dotoreak, jaialdiak, etab. ikusiko ditugu, denon onerako seguruenik, jendea aspertuxea bait zegoen mitin mitineroekin.

Jaigiro honen erdian Udalak herriko etxegintza ikaratan jar dezakeen erabakia har dezake. Hala baderitzo, ehunetik gora etxebizitza egin dezake, merkantuan ohizkoak diren prezioetan baino dezente merkeago. Etxegileek ez badute begi onez hartzen erabaki hau, etxebizitza erostekotan direnak poztuko dira, zalan-tzarik ez, prezioak denetan merke daitezkeelako.

Batzuk eraiki, beste batzuk bota, Musakolako Arrue baserriari gertatu zaion bezala. Gure herria txistu bizian ari da aldatzen. Hori izango da bizilegea baina, joño, astirik ere ez du ematen aldaketok geureganatzeko. Aguro, aguro. Horrela bizi gara. Zer erremedio, esango luke besteak.

Joxe Aranzabal

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

PUB HAIZEA



Gorosarriren 1. mendeurrenean

Urriaren 13an ehun urte beteko dira Eduardo Gorosarri musikari eskoriatzarra jaio zela. Efemeridea ospatzeko Eskoriatzako Udalak hamalau eginetako egitarau trinkoa eratu du.

Hamahiruan oroitari bat jarriko da haren jaiotetxean lehen mendeurren hau gogoratzeko. Hamalauan Donostiako Udal Kontserbategi Goreneko txistulariek kontzertua eskainiko dute parrokiari. Larunbatean, hilak 21, Jose Maria Azkue organujolearen kontzertua. Igan-dean, hilak 22, Eskoriatzako Musika Bandaren Kontzertua, eta Koldo Merinok egindako eskulturaren in-
augurazioa. Hilaren 28an, gaueko


9etan parrokiari, lehenengo aldiz Eskoriatzako Gorosarri abesbatza, Aretxabaletako Andra Mari eta Arrasateko Orkestak emanaldi bateratua eskainiko dute, Gorosarriren piezak joko dituztelarik. Pieza horien arreglo eta konponketak Juanito Artzamendiren ardurapean egin dira.

Gorosarriri eskainitako erakus-keta monografikoa Kultur-Etxean izango da ikusgai hilaren 13a eta 22a bitartean. Bertan haren bizitza eta obraren berri emango dizkiguten argazki, objektu eta bildu diren maisuaren obra erlijioso nahiz profanoak ikusi ahal izango dira.

Esteban Garibai

Garibai kaleko liburu azoka dugu albiste egunotan. Bertara hurbiltzen zaretenok, Orain 500 bat urte Esteban Garibai arrasatearrak idatzitako "Espainiako Historia Orokorra" aurkituko du-zue, hiruzpalau alesendotan.

Gastelaniar zaharrean idatzita, Gerardo Uña bilbotarra arduratu da orain bere argitalpenaz.



Euskaltzaindiak diru segurtasuna lortu

Negoiazio latzen ondoren, hitzarmena urte t'erdiz atzeratu da Nafarroako Gobernuak ipinitako oztopoak direla eta, azkenean Euskaltzaindiak lortu du Hego Euskal Herriko Administrazioak ados jartzea Akademiaren egoera ekonomikoa datozen sei urteetarako ziurtatzeko.

Urtero Euskaltzaindiak 159 milioi pasatxo jasoko ditu, kopuru honen banaketa honela emango delarik: %58,4a Eusko Jaurlaritzaren kontura, %16,4a Bizkaiko Diputazioak emanda, Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak bakoitzak %10,3a ipiniko dute eta Arabakoak %4,5ekin lagunduko du.



I. C. Elektro Leniz

* *Industri eta etxeetako instalazio eta mantenimendu elektrikoak.*

* *Gas natural, gasolio eta elektrizitate bidezko berokuntzak etab. Elpan, Wampan erredagi bidezko sistema; obrarik gabe.*

* *Airea klimatizatu, garbitu eta girotu.*

Industrialdea, B-5 Tfnoa: 79 03 03 ARETXABALETA
79 05 18 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errebala 11, Tfnoa: 79 20 56


AURRERATZEKO



AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 76



Biharko Iturripe (II)

urreko astean etorki-zunean Iturriperako bete nahi den egitasmo osoa aurkeztu genizuen.

Proiektuaren barruan, aipamen berezia merezi du bertan eraikiko den kiroldegi estaliak.

1.800 m² izango ditu, eta egurrezko fatxada Eskainiko dituen zerbitzuak, honako hauek: Multipis-

ta. Bertan, 24x13 mko. Hiru saskibaloi kantxa, eta 26x14ko beste laugarren bat.

Dutxa eta aldagelak. Sarrerako Hall-a. Materialak gordetzeko biltegia. Era berean, Makina gela bat egin nahi da, edozein hausturak suposatuko lukeen arazoak konpontzeko.

Ikusleentzako harmailak, eta goiko aldean kokatuko den kafetegi

zerbitzua. Aipatu behar, gainera, kafetegiaren alboan terraza eraiki gura dela, kanpoko kantxetan gertatutakoak jarraitu ahal izateko.

Egitasmo guzti honek ohizko osagaiak ere kontutan izan ditu: Megafonia sistema, emergentzi irteerak, argiteria... etab.

Oraingoz, mahai gainean dugu kontua.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Guztira hamazazpi etxola zabalduko dira

Liburu azoka Garibain

Urriaren 9tik 15era, berriak ezagutzeko aukera

Urtero bezala, Garibai kalean liburu azoka zabaldu da urriaren 9tik 15era. Azoka honek egunero irekiko ditu ateak, goizean 11,30etatik 2etara, eta arratsaldean 5;30etatik 9;30etara.

Guztira 18 etxola aurkitu ahal izango ditugu bertan, horietariko bakoitza argialetxe, liburudenda eta banatzaile ezberdinek antolatuko dutelarik.

Aurtengoan, berrikuntza bezala ume eta gazteentzako 2 stand kokatuko dira. Hauetaz aparte, ohizkoak

diren beste gai batzuk ere: Nobelak, enziklopediak, komikiak, antzerki liburuak, musika kasette eta diskak...etab.

Arrasateko Udalak eta Gasteizko Gobernuak emandako laguntzaz irten dira aurrera Liburu azoka honen antolatzaileak. Gauzak horrela, aurtengoan bizitasun berezia eman nahi izan diote ekintza honi; eta kontestu horren barruan azpimagarria da Larunbat arratsalderako umeentzako antzerkia prestatu dutela Azoka gunean bertan.

■ Aretxabaletan, bertako ekonomia sustatu eta garatzeko elkarte

Aretxabaletan kokatuko da etorkizunean ASESA elkarte, zeinen helburua bertako ekonomia sustatu eta garatea izango den. Hiru aurrezki Kutxek, Foru Aldundiak eta Aretxabaletako Udalak emango dituzte proiektua martxan jartzeko beharrezkoak diren 80 milioiak.

Hiru asmo bete nahi dira: Industri zerbitzua berrindartzea. Nekazaritza eta Abeltzanintzari bultzada berria ematea ikerketa konkretu batzuen bidez; eta azkenik, etxebizitza eta lur azpiko apar-kalekuen eraikuntzari ekitea.

■ Txakur baten bila

Urbe auzoan neskartila bati hainka egin zion txakur ar txiki samarra, marroi iluna, ile motzekoa bilatu nahi da. Topatuz gero, mesedez Udaltzaingora deitu.

JAIOTZAK

Sagasta P. de Arenaza *Amaia*
Irailaren 30ean.

Hermo Gracia *Rocío*
Urriaren 4ean.

Oregi Elizburu *Jone* 6an.

Gómez Vázquez *Igone* 6an.

Garrido Izquierdo *Maitane* 7an.

Agiriano Borrego *Maita* 7an

EZKONTZAK

Javier Garro Urzelai &
M^a Jesus Ayucar Zudaire
Urriaren 6an



comercial SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA**

MANTENU-ZERBITZUA

***Ekipamendu eta programak**

***Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR



Maritxu Kajoi



Bost auzo liburutegi herrirako

Urtea amaitu baino lehen, eta gaztetxoei zuzenduta

Astelehen arratsaldean, Garibai etorbideko liburu azokaren inaugurazioan albiste garrantzitsua zabaldu zuten Xabier Bengoa kultura zinegotziak: Haur eta gazteentzako bost liburutegi berri eraiki nahi dituzte Arrasaten.

Gaur egun, Monterroneko liburutegiak ematen die erantzuna gure herriko beharrei. Dena den, badirudi hori ez dela nahikoa, azken boladan eskaileratan ere aurkitu izan bait dute irakurleren bat edo beste.

Leku falta eta herriko gazteek irakurtzeko erakusten duten zaletasuna medio, orain bost auzo ezberdinetan irekiko dituzte liburutegiak. Auzo hoiek, hain zuzen ere, Garagartza, San Andres, Musakola, Santa Marina eta Uribarri izango dira.


Asmoa, urte amaiera baino lehen liburutegiak martxan egotea. Lehenengo Santa Marinakoa izan daiteke, eta gero besteak. Esan behar, bukatzeko, oraingoz behintzat ez dutela aurrekontu zehatzik aurkeztu.

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**



Kiroldegian berriztapen ugari

Musakolan, 115 milioi obra berrietarako

Musakolako kiroldegian gogor ari dira lanean, Arrasaten egiten diren kirolei behar-bezalako erantzuna emateko.

1989ko urtarrilean eman zen lehen pausua, Antoñia pabeiloaren inaugurazioaz. 40 milioi inbertitu zituzten bertan 5 squash, saskibalo kantxa eta boxeo gela zabaldu zituztelarik. Dena den, egitasmoa ez da hor amaitzen eta proiektu berriak aurkeztu dituzte etorkizunerako.

Alde batetik aldagelen berriztapenari ekin diote, lehen faseari behintzat. 30 milioiko aurrekontuaz, azaroaren hasierarako obrak bukatzea espero da.

Bestalde, futbol zelaia hobetzekotan 5 milioi gastatuko dituzte.

1989ko abendurako ere, aire zabaleko pista atletikoa eta Rokodromoa zabaldu nahi dira, 2.350.000 pta.ko aurrekontuaz.

1990erako, bi helburu azpimarratu behar. Hall-aren eta 2. faseko aldagelen berriztapena ekainerako egitea, 30 milioiko aurrekontuaz; bestetik, gaur egun jantokia dagoen lokala gimnasio bihurtzea.


Ez dira txantxetakoak bertan erabiltzen diren zifrak. Guztira, 115 milioi Arrasaten kirolzale diren guztientzat; eta gogoratu Iturripeko proiektua ere hor dagoela zain.

Aretxabaletako kuartela, zegoenetan

Aretxabaletako koarteletxea ez da, iragarri bezala, urriaren 10erako hustu. Kanpaina giroan, Madrilgo Gobernuak ez du agertu nahi gai horretan amore ematen duenik eta hauteskundeak igaro arte behintzat, ez dirudi koartela hustuko denik.

Dagoeneko trastoak, koltxoiak etab. eramaten ari dira. Komandateak esan zigunez, 32 dira bertan dauden goardia zibilak eta urria amaitu aurretik ez du uste joateko agindurik jasoko duenik.

Koarteletxea Errepublika garaian eraiki zen eta Aretxabaletako Udala da haren jabea. Oraingoz inork ez daki hustutakoan zer erabilpen emango zaion.



X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteroporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lunbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

MARENAZA

Altzriak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

ZUBIZARRETA TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



Guapo-guapo azaldu zitzaizkigun modeloak

Bergara moda

18 jantzidendak 100 gizon eta emakume jantzi zituzten iganderako

Joan zen igandean egin zen Txibiston Bergara Modaren beste edizio berria Bergarako 18 jantzidenda arduratu ziren, adin guztietako 100 gizon eta emakume jantzen. Modelu guztiak bergararrak ziren, alabaina Pariseko modelu profesionalak ziruditen beren orrazkera eta apaingarri dotoreekin. Koreografia, muntaia eta zuzendaritza Maria Isabel Hurtadoren kargu egon zen eta esan behar

oso aurrerakoia eta abanguardista izan zela. Bergarako jendeak ongi erantzun zion udazken-neguko moda erakustaldi honi, zeren Txibisto jendez bete zen. Beraz arrakasta handia izan zuen Bergara Modaren edizio berri honek eta orain udaberri-udako moda erakustaldiari itzarrotea besterik ez zaigu gelditzen.


Mikel Elkoroberezibar

Zergak aitortzen

Irailaren 20an hasi zen aurtengo zergaren gaineko aitortpena egiteko epea. Deba Garaian aitortpen mekanizatua egin gura duten guztiak Bergarara joan behar dira, Toki Eder auzoan, S. Antonio ondoan. Diputazioak daukan bulegora.

Hamazazpi langile ari dira lanean, zazpi ordenadore terminal dituztelarik. Egunean bataz beste 300 aitortpen baino gehiago ari dira prozesatzen. Azaroaren 25a bitartean eskubete lan izango dute pape-rok aztertzen.

Bulegoa 8:30etan zabaltzen da, 14:00ak arte, larunbatetan ere bai. Baten bat goizeko 6:00etatik zegoen zain. Arrasateko goiztiarrenak 7:30etako autobusean joanda zuden.



LA UNION


Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62



**Arrasateko
jattetxea**

Olarte kantoia 3.
Tfnoa: 79 84 53

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

botu saltsa

● Azkenean ailegatu da. Gora kanpaina! Momentu egokian heldu ere. Izan ere, *garala da zure borrokarekin bideak zabaltzen hasteko, Euskadi indartu nahi badugu*. Horrelako zerbait izango litzateke balizko fronte abertzalearen mezua, oraingo kanpainarako. Ez harritu fronte duntsua mamitzen ez bada. Halako mezu luzeekin...

● S. Biator inguruan zihola Eli Galdos harrapatu genuen. Inkestei buruz galdetu genionean, oso zuhur azaldu zitzaigun "Horiek kontu handiz hartu behar dira. Gure helburua 5 diputatu ataratzea da. Hortik gorakoa..." Bizkorra bera, zer gerta ere.

● Koro Garmendia EEren Kongresurako zerrendaburua da Guipuzkoan. Bazenekiten 1979-80 ikasturtean Arrasateko Institutuan izan genuela irakasle? Artearen Historia karrera bukatu berri, Mondragoera etorri zen Bartzelonatik, euskara irakastera. Tarte horretan Garibai kalean bizi izan zen, beste zenbait irakaslerekin batera.

● Asko dira deituak baina gutxi aukeratuak. Bailarako bederatzai hautagaietatik nor irtingo da? Kinielak onartzen dira.

T x a n d a k a

Ingurunearen ezagumenduaren balioa non datza?


Dударик ez, inguruak badu zer esanik gizakion jarrerez, badu zer esanik gizarte mota ezberdinen emaitzak aztertzerakoan. Eta hori hala baldin bada, zergatik ahalegintzen gara une askotan bera baztertzen? edo berak eskaintzen dizkigun mezuak ez jasotzen?

Gizakiak bere existentzia osoan lortu ez duena, guk, aurretik zeozer egiten ez baldin badugu behintzat, epe labur batean lortuko dugu: hamaika gizatalderen desagerpena, usadio eta ohiturarena, eraikuntz arkeologikorena -Arrasateko Labe-koba urrutira joan barik-, hamaika abere eta landararena...

Eta zer egin? Nola demondre konpon genezake gainbehera hau?

Nondik hasi? Badauzkagu bide ireki batzuk lantzeko eta harrotzeko. Garrantzitsuena, maisu-maistrei nahiz gurasoei dagokiena: oinarria prestatzea, eta berau eskolatik, lantzen hastea.

Prestakuntza honek baditu bere urratsak. Alde batetik, irakasle eta umei dagokien eduki eta aktibitateena. Hau nolabait, eskola bamean aztertuko diren edukietan oinarritzen da. Eta bestetik, askotan baztertzen edo ahazten zaiguna: jarrera edo kontzientziarena. Berau da, ene ustez, irakaskuntza mailan lor genezakeen helbururik garrantzitsuenetarikoa, eta maisu maistrak ahazteke, gurasoei dagokien lana da. Beraien inplikazioa nahitanahiez-



Iñigo Ramirez *

koa da; ezin bait daiteke hezkuntza eskolara bakarrik murgildu.

Hau eskuratzean, geureak eta bi egingo genituzke. Baina nola ezagutu inguru hori? Ba ote dago metodologia-rik?(...)

Eskoriatzan kokaturiko Irakasle Eskola-

ko zenbait ikaslek eta irakaslek, giza gaietako eta zientzietako kultur aste bati ekin genion. Aste Santu ostetik hasi eta ekaina arte, jo ta ke ibili ginen aurretik jarritako hainbat helburu gauzatzeko asmoz: ibilbideak eginez (Leintz Gatzaga, Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Arrasate eredutzat harturik), tailerrak antolatuz (aintzinako erremintagintza, buztinagintza, joku ekolojikoak, laborategi-praktikak...) eta beste zenbait ekintza ingurua ulergarriago bilaka zedin.

Emaitzak, nola ez, denetakoak izan ziren, baina denetan interesgarriena eurek kontuaraztea benetako eskola zein eratakoa izan beharko lukeen eta zeintzuk helburu lortu beharko litzuzkeen garbi, edo nahiko garbi, izatea.

Halakoa baita hainbeste aldarrikatutako eskola bizi eta dinamikoa. Halakoa baita, azken finean, kilokolo dagoen gure irakaskuntzaren jarraibidea. Hala uste dut nik, behintzat.

Dena dela, emaitzak ez datoz berehala. Baina, "bidea ibiliaz egiten da". Hala izan bedi!

(*) Iñigo Ramirez
Irakasle Eskolako irakaslea

ATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekoa 2, Tfnoa: 76 23 75



Mondragoe jatetxe onen faltan dagoela aspalditik entzun den leloa da. **Jose Luis Calleja** eta **Andoni Roa**, Gatzaga jatetxe berriaren arduradunak, hutsune hori betetzeko asmotan dabilta.

Jatetxeak, lehengo Urizar, 19 mahai dauzka. Bazkariak eta afariak ematen dituzte. On dagizuela!

Izen propioak

Arantza Lejarraga, 24, arrasatearra da Umezaintzako zuzendari berria. Arantza pedagogo da. Donostiako EHUKo Zorroagan egin zuen lizentziatura. Zuzendaritzan Eskame Aranoa ordezkatu du.


Anton Lopez, 38, musakolarra irailaren 6an Tangerren ezkondu zen, islamiar errietoaren arabera. Antonek *Enarak* musika taldean jo zuen eta Parisko Sorbonneko Unibertsitatean bi edo hiru urtez ikasi. Musakolako Iru-Biden ere egon zen lanean. Orain, islamiar bihurtuta, Granadan bizi da.

Imanol Moreno, 24, Osakidetza bere ospitaleak edertzeko antolatzen duen lehiaketan saria irabazi du pintura mailan. Eskola Politeknikoan ikasi ondoren, Arte Ederrak egin zituen Bilbon. Iaz larunbatetan pintura klaseak eman zituen.

Jose Antonio Azurmendi, 25, "Gaur Express" egunkariaren Deba Garaiko korrespontsari berria. Kazetaritza egin zuen Leioan. Aipatu egunkarian "Atxurras" ezizenarekin sinatzen du. Horretaz gain, Diputazioaren babesean egingo den *Eskolaz kanpoko iharduere* azterketa egingo du.

Daniel Laskurain, 23, artista bergararrak *Euskadi 88 Gazteria Lehiaketaren* lehen saria eskuratu du grabatugintzan. Arte Ederrak ikasten ari da, 5. kurtsoa. Aurten Amberesko Bienalean erakutsi du hainbat obra, beste lagun batzuekin batera. Orain paper birziklatuaren erabilpena artean ari da ikertzen Diputazioak emandako bekari esker.

Asteartero, goizean, Arrasate pasealekuan aritzen dira **Jesus Beltran** eta **Arantza Lizaso**, "Plan Mondragón" delakoarekin aurrera jarraituz. Besteak beste tentsioa, pixua, altuera, elektroak etab. neurtzen dizkiete bertara hurbiltzen direnei



Epelde

Manuel Fernandez eta **Isi Giner** uztailaren hamabostean ezkondu ziren Musakolako S. Isidro elizan. Bejondeiela eta urte askotarako!.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

Maiatz

ILEAPAINDEGIA
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)

Tfnoa: 79 58 78

ARRASATE

Eskopetak dagoeneko prest

Pilarikarekin bat, tiro hotsak eta kontrakoen ahotsak

Heldu zaigu urria eta beronekin batera gure baso eta mendiak garai honetako hots adierazgarriaz beteko dira, tiroen hotsez, hain zuzen. Dagoeneko prest daude eskopeta, ehiza postuak eta ehiztariak, beren grina edota zaletasuna asetzeko, Pilarikako zubia noiz helduko zain ditugu. Hots hauekin batera, haien aurkako salaketak ere kaleratu dira, urteroko eztabaida denon ahotan jarriz. Batzuk, gaur egun ehizean aritzeak zentzurik ez duela, animaliak hiltzeaz gain, mendia zikinkeriaz beteta uzten dutela; besteek berriz, gizonen duten barne dei bati jarraitzen diotela, ehiztarien eta eskopeteroen artean bereiztu beharra dagoela. Urteroko arazo hau oraingoan ere berpiztu eta kaleratu da.



Ehiztaria bere txakurrarekin bakarrik joan ohi da mendira

Aspaldiko usantza

Gizakiak bere izatearen hastapenetan ehiza zuen bizibide. Garai hartan, gizakiak ehizean beren beharrak asetzeko aritzen baziren ere, gaur egun ehizak hasierako zentzu hori galdu egin du, batzuentzat kirol bihurtu delarik.

Edozelan ere, animaliak gutxituz joan diren bitartean, ehizarako tresnak ugaritu eta hobetu egin dira, azken urteotan ehiztarien aurkako ahotsak gero eta indar handiagoz kaleratzen direlarik.

Arrasateko Leintz elkarteko lehendakariak, Heriberto Altunak zera zioen "gizona, gizon denetik barruan duen dei bati erantzunez joaten da ehizera. Batzuk galdu egin

dute hori, beste batzuk inoiz ez dute izan. Edozelan ere, barne dei hori oso indartsua da. Zenbaitek ehizean aritzeari utzi nahi izan dio, baina oso denboraldi txarra pasa ondo-

dutan ere, ehizaren aurkakoek barne dei hori ehizari ez uzteko aitzakia hutsa baino ez dela adierazten dute. Arrasateko Ehiza eta Arrantza elkarteak 550 bazkide ditu eta bere lehendakariaren hitzetan beste horrenbeste izango dira elkartearen parte hartzen ez duten ehiztariak. Makinatxo bat jende beraz.

Gero eta animalia gutxiago

Euskal Herrian gero eta animalia eta txori gutxiago dagoela ez du inork ukatzen. Hondamen honen errua ehiztariei baino ez leporatzea axolagabekeria hutsa litzateke. Arrasaten lanean diharduten talde ekologista bietako partaideekin egoteko aukera izan dugu. Ekikoek zein Eguzkikoek animalien gutxitzea, errepideen ugalketak, hiri eta herrien handitzeak, ur eta eguratsaren kutsadurak eta beste zenbait faktorek eragiten dutela adierazi digute, honetan ehiztarien eragina ere nabaria delarik. Talde hauentzat animalien gutxitzearen errua osoa ezin zaie ehiztariei leporatu, baina bai beronetan parte hartzea. Animalia eta hegaztien gutxitze hau nolabait gelditzearen eta bide batez, beraiek ehizean segitu ahal izateko, ehiztari elkarteek urtero birpopulaketak burutzen dituzte. Arrasateko ehiztarien

Errepideak, hirien handitzea, kutsadura eta besteak beste ehiztariak, ditugu animalien gutxitzearen errudun

ren, berriro hartu behar izan du eskopeta". Agian Heribertok hitz egiten digun barne dei hori Euskal Herriko toki ugarian, ezagutzen den istorio zaharreko Mateo Txistu abadearen irrika bera da. Edozein mo-

elkarteak azken bi urteetan ez ditu birpopulaketak egin, Udalak ez bait die epe horretan dirulaguntzarik eman. Elkarteko lehendakariak Udalak azken bi urte hauetan dirulaguntzak ukatzeko orduan azalpen

edota arrazoirik ez diela eman adierazi digu, oso haserre agertzen zelarik. Eguzkiko partaideen ustez aldiz, birpopulaketa hauek ez dute ezertarako balio, mendian hegaztiak utzi bezain laster ehiztariek hiltzen dituztelako eta honez gain, askatzen dituzten hegaztietatik oso gutxik lortzen duelako bizirik irautea. Ehiztarien ustez ostera, birpo pulaketen ondorioz, hegazti harrapariak ugaldtu egin dira gure mendietan.


Ehiztariak eta eskopeteroak

Ehiztariek, sarritan eskopetero eta benetako ehiztarien arteko bereizketa egiten dute. Benetako ehiztaria, ehiza ezagutzen duena, arauak betetzen dituena, mendira kirola egiteko egunpasa joaten dena da, gehiegi axola gabe zerbait ehizatzen duen ala ez. Eskopeteroak ostera, ez ditu hegaztiak bereizten eta hegan egiten duen edozeri tiroa jaurtikitzeko prest dago. Ehiztarien hitzetan hauek dira benetan animalia eta hegaztiei kalte egiten dietenak. Talde ekologistek berriz, ez dute bereizketa hau egiten, azken finean ehiztariak ere, edozeri tiroa botatzeko prest daudela salatuz.

Bestalde, ehiztariei sarritan ehizean erabiltzen dituzten kartutxoak mendian uztea ere leporatu izan zaie. Arrasateko Ehiztarien Elkartekoek aditzera eman digutenez, urtero usopasa bukatu eta astebetera beren Elkartek dituen postu guztiak garbitu egiten dituzte. Urtero posturen bat zikin gertatzen denez, postuak seinalizatzeko beharra azaldu zuen, era honetan

postuak nork zikin eta nork garbitzen dituen jakiteko aukera egongo bait litzateke eta behar diren neurriak hartzeko ahalbidea.

sortzeko asmorik jendea beste modu batzuk erabiliz beren jokabide okerraz konturatzea dute helburuztat. Ekikoeak aurten ohi dutena baino



Horrelako ugari ikusiko dira egunotan

Urtero iskanbilaren bat

Garai honetan, talde ekologistek ehizaren aurkako kanpainei ekiten diete. Kanpaina hauek jendea ehiza egiteari uzteko konbentzitzea dute helburu. Kanpaina hauen barruan ehizarako postuak dauden tokietara zuziri eta zarata egiteko tresnekin joan ohi dira, uso-banda da hurbiltzean zalaparta sortuz norabidez aldarazteko. Pentsa daitekeenez, ekintza hauek ez dira ehiztarien gogoko eta sarri askotan istilu, borroka eta mehatxu ugari sortu izan dira. Ekikoeak aditzera eman digutenez, aurten ez dute ehiztariekin liskarrrik

kanpaina luzeagoa burutzeko asmoa dute, beronen barruan herrietarako ziurtasun eremu bat ezartzea eskatuko dute, hau da herri inguruan ehiza debekaturik egongo den gunea ezartzea. Bestalde, ehiza dendek honi buruzko araudia betetzen duten ikusi eta ehiza postu ezlegalak salatzeke asmoa ere badute.

Eguzkikoeak esan digutenez, oraindik ez dute kanpaina gauzaturik baina urtero burutzen dutenaren antzekoa izatea espero dute. Prentsaren bidez komunikatuak kale-ratuz eta jendea honen aurrean kontzientziatuz.

Talde hauek, egiten dituzten kanpainak arrakastatsutzat jotzen dituzte, gero eta jende gehiago bait dago ehizaren aurka, eta jende gehiagok ehiza egiteari uzte bait dio.



Ekologisten ebisua

LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

berango

Arotzeria orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atea

Legarreko pabiloi industrialak
(Behea) Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otorora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren
diagnostiko goiztiarra, bular patologia,
zitologia, menopausia, haurdunaldiaren
kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea


ARRASATE

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGAIAK
Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

Arrasate
u
t
o
e
s
k
o
l
a
 Klase
praktiko
eta
teorikoak
Olarte, 30
79 89 89

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

ILE - ERORKETA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik,
aprobetxa zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak
Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

ARRASATE
PRESS
astero zuekin

“Irakaskuntzatik gogaituta irten nuen”

Joserra Gartzia, hezkuntza eta komunikabideen artean

Joserra Gartzia, gutariko zenbaitek telebistan bertsolaritzari ekaini dizkion saioengatik izango dugu ezagun; beste askok, irratian burutu duen lanagatik eta beste batzuk, Arrasateko ikastolan lan egin zuen bitartean ezagutu genuelako. Duela gutxi Arrasatera egin duen osteratxoan harrapatu eta gure artean bizi izan zituen urteez eta beste zenbait gaiz hitz egiteko aukera izan dugu.

— *Arrasate Press: Nola gogoratzen dituzu Arrasaten pasa zenituen urte haiek?*

— *Joserra:* Arrasatera 75ean etorri nintzen eta lau urte eman nituen bertan. Lehen bi urteak nire bizitzako urterik onenetakoak izan ziren. Ikastolan 3. eta 5. mailakoei eman nien klase lehen bi urte haietan. Ikastolan oso giro ona zegoen, 15en bat irakasle baino ez ginen eta oso gustora aritu nintzen. Orduko nire ikasleak izan zirenekin oraindik ere, harreman ona gordetzen dut nahiz gutxitan ikusten ditudan. Baina bi urtetan, 15 irakasle izatetik 60 izatera pasatu ginen. Masifikazio itzela eman zen eta hasierako helburu pedagogiko batzuk galdu egin ziren. Irakasleok eritzi kontrajarriak genituen, batzuk dena gauza kuadrikulatu batzuetan sartu nahi zuten. Jakina, hau nire ustea da. Bi irakasleri, oraindik ere argitu gabe dauden arrazoiengatik espedientea jarri ziguten. Aitzakia formalak erabili ziren, espiritu kooperatibistarik eza eta antzeko batzuk. Handik aurrera oso disgustora ihardun nuen ikastolan.


— *Horren disgutora egonda, nola ez zenuen alde egin?*

— Bertatik alde egin behar nuela erabaki nuen, baina gauzak ez zitzaizkidan ondo atera, beste urte bi eman behar izan nituelarik bertan.

Herrian, gaueskola inguruan eta... oso gustora nengoen, baina ikastolako azken bi urte haiek ia-ia suplizioa izan ziren. Orduko zenbait maisu eta andereñorekin gonbaratuz gero, nire ikuspegi pedagogikoak oso bestelakoak ziren. Urte haietan egin nuen lanarekin ez nago batere konforme. Akorralatua edo sentitzen nintzen. Gustoko ez nuen sistema ezartzen ari ziren, nik ezagutu nuena baino askoz burokratizatuagoa.

— *Eta hartu eta Alemaniar joan zinen?*

— Bai, bi urte eman nituen han, alemana ikasi eta unibertsitatean piskat saltzeatzen. Hemen nuenarekin eten bat egiteko balio izan zidaten urte haiek. Arrasateko urte haiek oso onak izan



Joserra Gartzia

goela eta bestetik egiten nituen zenbait gauza nik aukeratutakoak ez zirela sentitu nuen. Egin behar nuen mozketak egiteko erreferentziarik gabeko toki batera joan nintzen. Euskararen edota euskal erreferentziarik ez duen jendearekin ere ondo molda zaitetzkeela ikustea oso positiboa da.

— *Etorri eta Tolosako ikastolan bi urtez aritu ondoren, Euskadi Irratian lan egiteari ekiten diozu. Ba al dute zerikusirik mundu bi horiek?*

“Nik pedagogia dut atsegin, baina gaur egun kezka pedagogikorik ez dut inon ikusten”

ziren, baina beharbada gehiegizkoak. Nolabait esatearren, kalean bizi ginen, herria guk eramaten genueneko inpresioa geneukan, guk denok. Baina, nolabait konturatu nintzen, nik aukeratu ez nituen bizi aukera batzuetan, aukera politiko eta pedagogiko batzuetan erortzen ari nintzela gehiegi pentsatu gabe, korronteak eramanda.

Momentu batean, batetik ikastolan oso disgustora nen-

zutena kontatzeko gai ez diren haurrak sortzen ari gara.

Nik pedagogia dut atsegin eta kezka pedagogikorik ez dut inon ikusten. Irakaskuntzatik nahiko erreta atera nintzen. Geroztik segitu dut 20 bat hitzaldirekin, Adarra ikastaroetan, komunikabideak eskolan nola integratu eta hizkuntza emateko sistema berri bat nola asmatu behar den predikatzen. Dena dela, inork ez didala kasurik egiten konturatu naiz.

— *Arrasaten posible al da zure ustez herri mailako telebista sortzea?*

— Beno niri telebista baino irratia gehiago gustatzen zait, edozein modutan ere posible dela uste dut. Irratia askoz ere erabilgarriagoa ikusten dut. Edozelan ere, telebistak badu bere tokia. Esperientzia hauek, telebistak duen ikutu sakratu hori kentzeko, jendeak dion beldur hori kentzeko, telebista handiei kritikoago begiratze-ko balio dezakete.

Zein eredu hartzen den, zeren zerbitzutan erabiltzen den etab. kontutan hartu behar harko litzateke, hori oso garrantzitsua bait da, komunikabide baten izatea baldintzatzen dute eta.



Sailkapen nagusiko irabazleak



Beteranoak

XI. Herri Krossa

Eguraldi txarraz, inoiz baino partaide gehiago

93 atleta hurbildu ziren igande goiz euritsuan Eskola politeknikora, Arrasateko XI herri krossean parte hartzeko asmoz.

Aipatu behar emakume bakarra hurbildu zela bertara, Elorrioko Begoña Larrañaga, hain zuzen ere. Gauzak horrela, korrikalari guztiek 10 km. bete behar izan zituzten. Amaieran, Durango aldetik etorrirako Jose Antonio Fernandez suertatu zen garaile, 31 minutu eta 59 segunduko denboraz.

Proba honi hasiera eman aurretik, 14 urtetik beherako umeak aritu ziren Iturripeko pistan. Dena den, denbora txarrazatik edo, 24 neska mutiko besterik ez ziren azaldu. Azkenean, honako haur hauek irten

ziren irabazle neurketa ezberdinetan: Jon Arrieta (7 urtekoen artean), Javier Coronado (8 urte), Josu Arroiabere (9), Iker Zabarte (10), Gorka Cantero (11), Iñaki Mayor (12), Felix Garcia (13) eta Alex Saavedra (14koen kategorian).

Esan bezala, krossa 11'30etan hasi zen. 5 korrikalari baino ez ziren erretiratu; eta bestalde, partizipazio handiena Arrasatek eskaini zuen 33 atletekin.

Bukatzeko, aipatu dezagun Xabier Mentxaka 3. postuan gelditu zela, 33.06 denboraz, 4. Pedro Zalama, 33.14rekin; eta 12. postuan Jose Galan, 35.02rekin. Hiru hauek izan ziren igande goizean lasterketarik onena egin zuten arrasatearrak.

Aitor Garmendia irabazle

Larunbat arratsaldean, Aitor Garmendia suertatu zen irabazle Arrasaten, "Memorial Gervais" erlojuaren aurkako proban. 37 segunduko abantaila lortu zuen Paternina-Orbeako Txirrindulariak, bigarren postua Xabier Lazpiurantzat izan zelarik.

Horrenbestez, Aitor Garmendiak 3. urtez irabazi du Gipuzkoako afizionatu mailako txapela; eta gogoratu, datorren urtean profesional bihurtzeko asmoak dituela.

Hasiera eskaxa saskibaloian

Arrasate Kirolak saskibaloitaldeak itxaropentsu aurkeztu zen larunbatean, denboraldiko lehen ihardunaldia jokatzeko. Aurrean, Deustuko La Salle.

Atsedenaldira gure jokalariek 45-35eko abantailaz heldu baziren ere, Partidu bukaeran La Salle 71-85 nagusitu zen kiroldegian.

Arrasatearren aldetik Galilea izan zen saskiratzailerik onena, 28 puntuz. Datorren astean Muebles Martin taldea izango dute etsai moduan, Donostialdean jokatu beharreko neurketan.

Mondra ez dabil ondo

Ligaren seigarren ihardunaldia jokatu ondoren, hirugarren mailako ekipoa 19. postuan aurkitzen da, hiru puntu eta hiru negatiboz.

Igande arratsaldean, Galdakao taldearen aurkako neurketan, 1-0eko emaitzaz nagusitu ziren bizkaitarrak. Gola Gotzonek sartu zuen, 62. minutuan.

Horrela, Mondrari 9 gol sartu dizkiote aurtengoan, arrasatearrek 4 sartu dituzten bitartean. Datorren astean, aukera ona izango dute Sodupe taldearen aurka, Atxabalpen.

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

podiuma

**Luis Zabala,
kaminu bazterreko
maratoilaria**

"Gigi" Juanitoren tabernan aurkitu dut, berriketan, kafesnea oraindik ere aurrean duela. Korrikalaria da, Maratoietan ibiltzen den horietakoa.

Hitz egiten hasi eta berehala aitortzen du aspaldiko kontua dela bere zaletasuna. "Orain hamar urte ekin nion korrika egiteari. Denbora pasa bezala, ezer konkreturik bilatu gabe".


Egunak joan, egunak etorri. "Gigi" atzera egitekotan egon zen, 42 km.ak betetzeko 3 ordu baino gehio behar zituela ikustean. "Baina tira, 86an, Mallorcara joan eta 2 ordu eta 50 minutuko marka egin nuenean...".

Asmo berriak, indar berriak. "Nitaz aparte, Zalama eta Kabiketak ere oso denbora onak egin dituzte, 2 ordu eta 30 minututik beherakoak".

Modan dago atletismoa Arrasaten. Ezin ahaztu egun hauetan Gay eta Maizbideren bila etorri direla kanpotik. "Eta horiek punta-puntan daudenak dira. Ezezagun asko daude beraien atzean, begira bestela, Gipuzkoako hirugarren taldea izan ginen aurreko urtean".

"Gigi" k benetan bizi du atletismoa. Tipo kuriooa, inguruan antolatzen diren proba guztiak buruan artxibatuak ditu. "Egia esan, ordenadore bat besterik ez zait falta gauzak zehatz-mehatz kontrolatzeko".

Egun hauetako kontua dugu ere Iturripen etorkizunerako bete nahi



Luis Zabala

den proiektua. "Gu kaminu bazterreko korrikalariak gara. Zer esanik ez, Iturripen eraiki nahi den atletismo pista, aukera ederra izango da gure atzetik datozenentzat".

Maratoia. 42 km. luzeak bata bestearen atzetik. "Gigi" egunero irteten da entrenatzera, 7rak aldean; eta hori bai, gutxienez 20 km. egiten ditu irteten duen bakoitzean.

Gauzak, ordea, aldatu egiten dira proba garrantzitsu bat hurbiltzen denean. "Igandean adibidez Donostian korrituko dut. Egun hauetan ez naiz entrenatzera joango. Masaia batzuk hartu... eta ea nola suertatzen den azken orduko esfortzua".

Kirolari guztiak izaten dute helmuga bat, ametsa. "Polita izango litzateke New Yorkeko maratoira joatea. Gastu izugarri handia, badakit, baina polita izango litzateke".

Egun hori heltzen den bitartean, "Gigi" k kaminu bazterretan segitu beharko ditu bere entrenamenduak, beste maratoilari batzuk bezalaxe.

■ **Pedruskok 3 - Huracaneak 2**

Ligako laugarren ihardunaldian, Lazarok lortutako bi goli esker (7 eta 21 minutuetan), eta Alfredok 80 minutuan penaltz lortutako hirugarren batekin, 3-2ko emaitzaz nagusitu ziren San Andresekoak.

Honenbestez, sailkapeneko bostgarren postuan daude Pedruskokoak 5 puntu eta positibo batez. Datorren astean, Arabako Ariznabarra Taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak gure mutilek, etxetik kanpo.

■ **Rugby-an, Hirugarren porrota**

Etsai gogorak dituzte aurtan Arrasate Kirolak Rugby Taldeko jokalariek. Mungia eta Elorrioren aurka lehen bi partidua galdu eta gero, hirugarren ihardunaldian Plentziara hurbildu ziren, Kakarraldo Taldearen aurka jokatzeko.

Neurketa hasieran 3-6ko emaitzaz aurreratu ziren markagailuan. Bigarren zatian, 13-12 egotera ere heldu ziren; baina beste partidu batzuetan bezala, indar gutxiz heldu azken minutuetara, eta bizkaitarrek 22-12ko emaitza lortu zuten beraien alde.


■ **Maizbide Arrasaten gelditu**

Aurrekoan J. A. Gayrekin gertatu zen bezala, Inazio Maizbideren bila ere etorri dira Donostia aldetik. Dena den, Arrasate Kirol Taldea akordio batetara heldu da Maizbide-rekin, eta lortutako marka eta txapelen truk primak ordainduko dizkiote.

Denborapasen soluzioak

Bokalak jausi dira

- 1) Jostailu. 2) Ortzadar. 3) Sumendi.
- 4) Urritza. 5) Zoriona. 6) Aztama.
- 7) Bildotsa. 8) Aintzina. 9) Laztana.
- 10) Alkate. JOSU ZABALA



OKENDO


KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Lauburuen esangura magikoa

Euskaldunok, lauburu gure nortasunaren ikur eta adierazgarritzat harturik dugu. Edonola ere, lauburuak ez dira euskaldunon jabegoa eta hala ia mundu guztian hedaturik aurkituko dugu ikur hau. Batzuetan karratua, beste batzuetan borobila, zenbaitetan ezkerretara begiratzen eta hurrengoan eskuinerantz. Munduan zehar lauburuak, Naziek swastika beren nortasun eta ideologiaren ikurtzat hartu zutelako esan daiteke bihurtu zela ezagun. Euskaldunok hau ikusirik, gureak, nazienak ez bezala, eskuinerantz begiratzen duela esango dugu eta berena karratua den bezala gurea biribila. Dena dela, Euskal Herrian ere aurkituko ditugu lauburu karratuak zenbait hilarritan eta eskuinetara zein ezkerretara begiratzen dutelarik.



Edonola ere, lauburuak ikur magikoa eta berezko esanahia mendeetan galtzen da. Lauburuak, Europan, Asian eta Ameriketako ikur magikotzat hartu izan da. Antzaenez, eguzkia eta beronen etengabeko mugimendua adierazten du, bizitza, berotasuna... esanahiak hartzen di-

tuelarik. Aintzinako gizarte eta kulturetan mundua alderdi txar, gaizto eta ezkorrean eta on, eder eta jatorrean bana zitekeen eta lauburuak bi esangura hauek hartzen ditu. Honela lauburuak ezkerretara begiratzen duenean baikortasuna adierazten du eta eskumatara begiratzean ezkortasuna, bizi indarren jokua eta etengabeko mugimendua adieraziz. Lauburuen bikoiztasun hau munduan zehar beste ikur ugari aurki genezake, ekialdeko kulturetako "ying-yang"ean, esaterako. Lauburuak edota zortiburuek berezko esangura hau galdurik badute ere, Euskal Herrian zein beste edozein lurraldetan apaingarri edota antzekoetan oraindik ere, bizi bizirik aurki genezake.

Galileo Megatoni

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura
etxeke ekipamendu osoa
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKOA ETA APAINZAILA TITULATUAK DAUZKAGU

Autoa erabiltzea zenbat kostatzen zaigun

Ondo dakigu -bai horixe!- autoa erostea zenbat kostatu zaigun. Kolpean erosiz gero kolpea galanta izaten delako. Eta zatika ordaintzekotan, ordainaldi bakoitzean gogoratzen dugulako. Baina autoa erabiltzeak sortzen digun gastua neurtzea zailagoa da. Pixkanaka sortzen da, ez da oso erregularra, osagarri ezberdinek osatzen dute...Eta, aldiz, garrantzi handiko datua da, bai zein auto erosi erabakitzerakoan, edo autoa erabili hala ez zalantzan aurkitzen garenean ere.

Horregatik, *motor 16* aldizkariaren azken alean agerturiko datu batzuk eman nahi nituzke hemen. Noski, modelorik arruntenak aukeratu ditut halaberrez. Bestalde, kostuaren kontua ateratzerakoan errekin, gurpilak, aseguruak, udal zerga eta ohizko errebisioak hartu dira kontuan, matxurak ez. Hona hemen kilometro bakoitzaren kostua, urtean 15.000 km. eginez gero:

	Diesel	Gasolinazkoa
Citroen AX 14 TRD	6,32	10,42
Fiat Uno DS 1.7	6,77	10,19
Ford Fiesta CD 1,8	7,51	9,07
Opel Corsa Dies	6,54	10,47

Renault 5 GTD	7,77	10,71
Citroen BX	8,55	11,45
Fiat Regata	8,33	12,92
Ford Escort	7,51	11,25
Opel Kadet	8,36	11,64
Peugeot 405	8,01	13,43
Renault 19	8,65	11,26

Ziur nago, irakurle, zurea ez dagoela. Barkatu. Dena den, nabaria da diesel eta gasolinazkoen arteko aldea erabileran dieselen alde, erosterakoan alderantziz gertatzen delarik. Urtean zehar egiten den kilometro kopuruak agindu beharko du zein aldetara jo. Bestalde auto handia garestiagoa dela urtean zehar gauza jakina da. Ondo bilatu behar ea zein den gure premiak betetzen dituen autorik txikiena.

Eta azken ondorio gisa, ahal denean autoa utzi eta oinez ibiltzea osasunerako ezezik patrikarako ere onuragarria dela.

Mikel Intxausti

amuebladora



mondragones

Zabalik gaude!!
Erakusketa berria
Santamainan

Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.
Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Fax: 791489 ARRASATE

Ugaran jatetxean


Gaurkoan Garagartzako "Ugaran" jatetxeko Patxi Barrutiarengana hurbildu gara euskal sukaldaritzari buruz zeozer gehiago jakin guran.

Gure lurralde honetan ondo jateak badu bere garrantzia, plazertzat hartzen dugu eta balore sozial handia ematen zaio.

Patxi dioenez gure sukaldaritzak baditu hiru aberastasun: arrain, haragi eta barazki kalitate onekoak.

Euskal sukaldaritzaren ezaguerria izan daiteke bestalde, arrainak gertaketako era berezia. Beste leku batzuetan saltsak asmatzen badituzte hauekin aurkezteko, hemen, arrain bakoitzaren zaporea gorde nahi izaten da.

Arrain ona prestatzeko badira bete beharreko hainbat baldintza: batetik, arrainaren freskotasuna eta bera harrapatuta dagoen modua



(amuz beti hobea sarek baino), bestetik berebiziko garrantzia izaten du labeak ematen dion puntua.

Arrainak erretzeko sistemarik egokiena berotasuna haizearen bidez zabaltzen duena izango da (konbekzio labea), honetan labe guztietan tenperatura bera egoten baita. Bestelako sistematan berotasun hori ez da homogenea izaten.

Graduak neurtuta dauzkaten labeetan tenperatura 170ºtan jarri behar da, bestelakoetan erdi inguruan jarriko dugu.


Arraina ez sikatzeko inportantea

da labean oso osorik sartzea. Zenbat eta zaituago orduan eta lehorrago aterako zaigu eta. Ebakirik egitekoan gainekaldean luzetara egin behar zaizkio. Modu honek bi abantaila dauka: beroa barruraino sartuko zaiola eta ateratzerakoan zabaldu egin ahal izango dela oso osoan.

Arraina 20 bat minututan edukitzen da labean erretzen, eta puntuan dagoen ala ez jakiteko hezurra okelatik banantzen ahaleginduko gara. Hezur ondoan dagoen okela gorri geratzea gurago, hori da puntuan dagoen seinale eta. Ez bada behar den moduan soltatzen, berriro labera sartuko dugu pare bat hiru bat minututan.

Hurrengo baterako uzten ditugu eman dizkigun errezetak, benetan samur egitekoak eta hatzamarrak txupatzekoak.

Morokil taldea



Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzaerak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
 Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

“ PAL ”

burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea,3
 Tfnoa 79 31 99



FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
 Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE

ITSASKI

arrandegia arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
 Arrasate. 79 98 94

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.


NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60
27 79 60
Arrasate 79 97 95



GIPUZKOA

HERRI Irratia



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

Gamei, S.A.

MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZAIK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

RAFAEL LORENZO

MEDIKU
ODONTOLOGOA

Zarugalde 3, 1. B.
Tfnoa: 79 35 80
ARRASATE

JADANIK
ZUEKIN

K
L
I
N
I
K
A

D
E
N
T
A
L
A

Loditasuna (V)

Sendagileak jarraitzen du: "Dieta orekatua eramatea derrigorezkoa da; 2.500 kaloria behar direnean 2.000 jenez gero, 50 gramo gantz galduko dira gutxi gora-behera, hilean 1,5 kilo. Horretaz gain, ariketa gogor xamarra eginez, galea azkarragoa izango da; baina kontuz, zer gastatzen den jakin behar da ondo; ordubetea korrika ibiltzearekin kaloria pilo bat galdu duela koan egoten da pertsona asko, eta gauzak ez dira horrela.

Ordubetea korrika ibili ondoren 600 kaloria gastatzen dira, hau da, okela xerra batek patata frijituekin ematen duen hainbat kaloria. Ordu betean azkar ibiliz sagar pastel zati batek ematen dituen kaloriak gastatzen dira. Litro bat ardok, egunero pertsona askok edaten duten neurriak, 900 kaloria ematen ditu. Aperitiboak, zizka-mizka ibiltzeak, gure neurketa guztiak pikutara botako



dizkigu.

Denetik pixka bat jenez egin behar da dieta, hori bai, koipe asko duten janariak baztertuz; bestalde, jaten dugunaren neurria asko jaisten denean, bitamina eta mineralekin indartu beharra dago. Bitaminek eta mineralek ez dute loditzen, urak ere ez; eta ura ugari edan behar da, askotan honek gose-zuloa kentzen laguntzen du eta. Errejimenak egiten direnean edari freskagarriak baztertzea komeni da azukre asko daramatelako eta sukaldean olio gutxi erabiltzea

hobeto.

Neurri txikiak jan behar dira eta normalean baino maizago. Horrela ez da agertuko gosea: hau da argaltzeko errejimenak duen etsairik nagusiena. Agertzen denean kaloria gutxi duten janariak gertu izatea da egokia.

Berriro diot, argaltzeko konbinaziorik onena, dieta eta ariketa da, ohituren aldaketa egokiarekin batera. Ondo eginez gero, pisua jaitea lortuko dela argi eta garbi dago.

Dieta arraroak eta medikamentuak edo botikak baztertu, bestela tratamendu hori utzi ondoren loditu egingo zara berriro.

Agian hasieran neketsua gertatuko zaizu baina egin dutenek, lehenengo zailtasunak gainditu ondoren, lortutako pisuan mantentzen dira eta ez dute beste estimulorik behar horrela jarraitzeko".

Eukeni eta Arantxa

sonora
KEF **Harman/Kardon** **PANASONIK** **CEC** **MUSIMA**
QUAD **ONKYO** **Vegas**
baile **Clener** **CASIO** **EGI**
Mission **Goodmans** **BASF** **NAKAMICHI**
HONNER **Televes** **Ortela**
Zimmerman **Polytone** **LARK** **Rotel**
Fujitsu **Fox** **MORESCHI**
Cyrus **JBL** **PHILIPS**
TEAC **TORQUE** **PIONEER** **KELLER** **Ortofon** **JUGGS**
Hantarex **Alpine** **Admira** **KONIKA** **UHER**
Tensai **MELOS** **Estrella** **KONIKA** **UHER**
Fonestar **SHINTON**
Otalora kalea Tfnoa 79 29 09 ARRASATE

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

Z **a** **r** **r** **a** **o** **a**

lurrundegia, opariak jostailuak

apaindegia **Tfnoa: 79 12 19**

VE ECUADOR

Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE


2. Oñati-Oñati zeharbidea bizikletan

Udazkena heldu, "Usopasie be bai" eta zeini ez etorri burura, garai honetako kantu eder hau : "San Simon eta San Judas, joan zen uda eta negua heldu da". Eta neguarekin batera mendiko bizikletan ibiltzeko aukera berria, mendiko zeharbi-deetan barrena murgiltzeko, udazken eta negu berriaren freskotasuna dastatzeko. Neguko arropak astindu, udakoak erantzi eta arropa luze-sendoak jantziko ditugu.

Guzti honen lekuko Oñatin, ostegun honetan, hilak 12, II. Oñati - Oñati zeharbidea bizikeletan, uda osoan pentsatutakoak ahaztu eta negu berriaren atarian indar berriez datozkigun ideiak martxan jartzeko.

Zeharbidearen gorabeherak

Hasiera Oñatiko kiroldegian eman zitzaion. Ondoren Garagaltza (354 m.) —Lamiategi (238 m.) —



Urteagain (501 m.)—Ubaoko presa (663 m.)—"hamarretakoa", Katabe-

ra (843 m.) —Udana (513 m.) — Oñati (240 m.)

Guztira 22 km.

Zalantzarik gabe kirolzale guzti-entzat eta bizikleta-mota hau praktikatzen hasi diren guzti-entzat aukera aparta izan da neguko hotzak astintzeko.

Bestalde, asteartean, hilak 10, Oñatiko Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan, Ikusentzunezko Hitzaldia antolatu zuten. Gaia oso interesgarria abenturazale garen guzti-entzat: Laponiara bidaia bizikeletan".

Abenturarekin bat egiteko baliabide aproposa, Laponiako kultura ezagutu, naturarekin topo egin eta kultura berri honekin harremanetan jartzeko.

Hurrengoan beste bat eta gainera Arrasaten!

B. B. T.

ANDERE

*Bainu eta
sukaldeko
ALTZARIAK*

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurria egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektretresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurria ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromezurik gabe.

*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

* Diagnostikoa - Orientazioa

* Estimulazio goiztiarra

* Erreabilitazio funtzionala

(Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)

* Logopedia

* Laguntza terapia

* Mota guztietako eskola

arazoak, enuresia

(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

Gorka

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea 10, behe. Tfnoak: 97 96 80 eta 79 63 67

ARETXABALETA




LORATEGI

taberna


Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Jendearen arretarako orduak




Goizetan
8,30etatik 14ak arte



Arratsaldeetan
16,15etatik 17,30ak arte



Larunbatetan
8,30etatik 13ak arte



Gipuzkoako Kutxaren bezero izan eta Arrasaten bizi bazara, orain luzaroago gauzkazu zeure zerbitzura.

Zeure herrian bertan.

Sukurtsalak ordutegi zabalago eta erosoagoan irekitzen ditugu-eta. Beste inora joan beharrik ez izateko. Eta denbora irabazteko.

Arrasaten, Kutxa zu gehiago eta hobeto zerbitzeko dago.

Goizero, baita larunbatetan ere. Eta arratsaldero, astelehenetik ostegunera bitarte.

.....

- Garibaiko Sukurtsala.

Goizero, astelehenetik ostiralera bitarte.


.....

- Zigarrolako Sukurtsala.
- Munareko Sukurtsala.
- San Andresko Sukurtsala.
- San Juango Sukurtsala.

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan garajea behar da, erosteko edo bestela alokatzeko. Tfnoa: 79.63.22.
- Donostian konpartitzeko etxebizitza behar dugu. Dei egin 79.67.76 edo 79.59.11 tfnoetara.
- Urrian eta azaroan zehar pisu baten gela behar dut. Lekurik badaukazu deitu: 79.80.86. Luis.
- Bilbon (Deusto). Pisu merkea konpartitzeko bi neska behar ditugu. Tfnoa: 79.83.63. Marian.
- Pisu salgai Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 78 26 97.
- Neskez osatutako pisu bila ari naiz Arrasaten . Tfnoa: 79 20 11. Luz. 296 . 9etatik 1etara edo 2etatik 5etara.
- Pisu osatzeko lagun bila gabiltza (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lanorduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolas.
- Neskez osatutako pisu bila ari gara Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Mertxe. (Deitzekotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik 5etara bitartean)
- Zarautzen, erdialdeko pisua errentan (igogailu eta guzti). Irailean 100.000 pezeta. Interesatuak deitu 83 17 67 tfno zenbakira. (Eguerdialdera edo arratsaldeko 6etatik aurrera)
- Pisu salgai Aretxabaletan, Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- Arrasaten erdialdean pisua salgai, Banco Bilbaon. 115m2, garajea eta trasgela. Tfnoa: 79 51 21
- Pisu errentan hartuko genuke Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehentik larunbatera

- Pisu salgai Munar Inguruan. 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- Donostian konpartitzeko etxebizitza behar dugu. Dei egin 79 67 76 edo 79 59 11 tfnoetara
- Aretxabaletan etxebizitza salgai Lora-mendi kalean. Tfnoa: 790445

LANA

- Euskaraz dakien pertsona haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko, behar dugu. Tfnoa: 79 72 75.
- Emakume edo neska behar da etxeko lanen eta hiru haurren ardura hartzeko. Euskaraz baldin badaki hobeto. M. Kruz Rodriguezengana zuzendu. Erguin kalea,3 bis. 3.a,esk.
- Pertsona arduratsua eta euskaraz dakiena behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 86 86
- Bisuteria salduz lan egin nahi baduzu, deitu 79 68 45 tfno zenbakira.
- Euskaraz dakien emakumea etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- Neska arduratsua haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informea ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Inglesezko klaseak emateko pertsona bat behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobe) interesatuak deitu 780785 10etatik ordu 1etara, astegunetan.

SALEROSKETAK

- Diskette berriak salgai 150 pezetatan bakoitza. Tfnoa: 79 71 26. Unai.
- 4/4 neurriko bigarren eskuko biolina salgai. Interesatuak dei telefono honetara: 79 52 15.
- Hollister bildumako eta Jaguar bildumako liburuak salgai, erdi prezioan. Ia berriak. Deitu 79.80.91 zenbakira. Otorduetan.
- Motorra salgai, Morini 250 cc matrikula SS-W. Tfnoa: 11 77 45. (9etatik aurrera)
- Bizikleta salgai. egoera onean. Zeus 2001. 40.000 ptan. Tfnoa: 78 00 35. Javier.
- Senar-emazte logela salgai egoera onean. Tfnoak: 79 48 92-79 51 50
- Kanadial kanpin denda salgai (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- 60 W-ko Roland kitarra anplifikadorea salgai (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Tfnoa: 79 15 96

DENETARIK

- Etxeko gauzak (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79.84.76 be-deratzietatik aurrera.
- Collie arrazako txakurra, emea, ondo zainduko duenari emateko prest nago. Tfnoa: 79 30 20.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Pablo Larrañaga Bergara
55 urte. Urriaren 9an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebehea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

JOXE MARI ARABAOLAZA (Joxe Mari Oxiña):
“Gabien hiru bider jaiki biher izaten zuan errotie zainketan”



Joxe Mari Oxiña andraz

Oñetitik Oxiña-errotara

Ni izetetz Oñetikue nok, Oñetiko Casablanca-n jaixo nitzuan. Hamaike urtekin hementxe gañeko base-ri batera etorri nitzuan kriaue eta harrazkero hemen bizi izen nok,... Oxiñako alaba bakarroi domiñau naixuan eta...

Lehenau zorro-karriuen be eurek

Nire aurretik, lehenau, lau astokin ibiltzen zittuan nire andrie eta beste mutil bat,... Larrañoraiño-ta, Goimendiraiño-ta, baserriz baserri, alie ekarri eta urute eruen. Gero, “el año 30” amandrie hil zuan eta orduentxe kendu jittuen astuok.

Gero, ni ezkondu nitzenien, 44uen neuk ipiñi nittuan hiru pareja harri. Bat erosi naixuan Gaartzako Murrizenien, beste bat Barrenan eta beste bat Andoillun. Gero bielketan justien Barzelonatik rebista baten, zela kanalak etara bihe dien, zela pikau bihe dan, eta halaxe neuk montetan nittuan.

Errotiorreaz aspaldi aspertute

Ni neuatik izan balitzok oin 35 urte errotioi kendute jauan bañe

ERROTARIXEN NUMERUEK	
$ \begin{array}{c} 1 + \frac{1}{2} \\ \text{p} \\ \text{5} \\ \text{10} \\ \text{20} \\ \hline 37\frac{1}{2} \text{ Libra} \end{array} $	<p>“Oxiñan gañera akordetan jate, eta kontrabentanetan tizaz eindde ikusi be ein leikez, pi-xue jarteko ebalten zien markak”</p> <p><i>Tratado de molinología (Antxon Agirre)</i></p>

andriek etxuztan itxi tte... Gabien hiru bider bajau ein bihe dok behe-
 ra, e! Gau guztien martxan itxi bihe dittuk harrixek. Nik hiru harri ifintten nittuan martxan. Garixe ehun kilo ixoten jittuan orduko eta artue hamalau. Etxe bakotxeko aliek, barrez, graduaziño diferentie bihe jok. Añubekuek etxok korriruten eta euzkierripakuek, barrez, dexkoidetan baaz dana jota aidien. Artue, gañera bestela be txarra dok. Dana pegau eta ezin ezela be urunik ein. Berrehun arratoi ikustie gura juat artue errotan ikustie baño.

Errotarixen irebazixe

Gerrararte errotarixek jaukan ehun kilotik hamar beretako. Bañe gerriek urten auenien, kilue txakur haundixe ta kitto. Lau kiloko mermie garixek eta bost artuek. Aber zeifiek ixoten dauen artue bost kiloko mermiaz. Atien ipiñitte pape-la, gañera, gehixau kobretan bajakon, baserrittarrak denunzietako deretxue aukela. Errotan behixek-eta onak topauko dittuk bañe diruik ez.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Aspaldi, Aixkoi-ko Braulio marinan soldau zeuala, Ingalaterrako Victoria erreginia hil zan. Ohizko honoriak egittera Españako gobiernuak gerrako barku bat bialdu eban eta bertan Braulio. Itsaso txarra ero Kantabrikan, eta hiletak pasau eta handik astebetara aillegau zan barkuoi Ingalaterrara.

Brauliok hau bere lagunartian kontau ebanian esan eban batek:

— Haura be izango zuan barku zarren bat?

— Zarra haura? Bai zera, banastatxuan tamainoko “tronilluak” jauzkan eta.

•••••

Urolako makinistiak laguna ikusten dau trenbide ertzian tapa-tapa.

— Hi, benga igo! -makinistiak trena geldittuta.

— Ez, gaur ez, gaur presa diat.

•••••

Aittak eskolatik negarrez zeterren mutikuai:

— Zer pasatzen jak?

— Maisuak jo egin nau Brasil nun dauan enekixelako.

— Ondo egin dosk. Hurrenguan hobeto begiratu gauzak nun lagatzen dittuken.

•••••

— Zela zikindu dittuzu prakak? -amak hasarre.

— Potzura jausitta -mutikuak triste-triste.

— Praka berrixekin?

— Bai, baina bizkor-bizkor jausi naiz eta eztot izan kentzeko astirik.

Juan Martin Elexpuru

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
 Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE





Garibai Etxea

Garibai Etxea Beheko Errabalean zegoen, herriko harresietatik kanpoko behelaldean.

Esteban Garibai eta Zamalloa bertan jaio zen, 1533an. Felipe IIaren kronikagileak bertan idatzi zuen gerora Anberesen inprimatuko zuen bere "Espainiako Historia Orokorra". 1569an Mondragoeko alkatea izan

zenaren etxeak duen aurrekaldea, Zerkaosteta aldera begira, 1560an berritzu zen, leiho bat eta burdinezko balkoia egiteko. Honen beiraleihoak Nantes-tik ekarri ziren. Balkoi gainean Zamalloatarren harmarria zegoen. Garibai bertan bizi izan zen garaian 13 eta 15. zenbakiak etxe berekoak ziren. Historigilea Madrilen hil zen, 1599an. Gaur egun, etxeak lehengo lekuan

segitzen du, Maisu Arano kalearen 5. zenbakian. Kalearen izena aldatu da, beraz.

Orain berrizteko garaia heldu zaio berriro. Hil honetan bertan hasiko dira obrak, 5.695.962 pta.ko aurrekontuarekin. Urtea amaitu baino lehen bukatuta egon beharko litzateke.

J. R. Galarza Arrazola

Kirurgia ortopedikoa eta traumatologikoa

Hasi: Irailaren 5ean

Kontsultak: astearte eta ostegun arratsaldetan

Ordua: aurrez eskatuz

San Vicente Ferrer 4 behea. Esk. 79 27 67 Arrasate

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE



**KONTRATAK
OROKORREAN**



Foruen enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

Miren Arrieta

Puntako tratamenduekin: Zelulitisa eta argaltzeko sistema.

Aurpegiko lifting ez-kirurgikoa.

Gainera, estetika-zerbitzu zabala.

Zatoz eta kontsultaiguzu

Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



**ERAÑA
AHOLKULARITZA**

**OROTARAKO
ASEGURUAK**

Kontzesiño kalea 4, behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE


BAZAR
TOKI ON

**Elektronika artikuluen
salmenta**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64 Arrasate

LILURA -ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Txipittuz doa dena

Egonezean ilargia gauaren apaletan,
izarrak ziruditen iltzetxoek,
euren buruzuria jauzita,
samurtasunik gabeko
ildo mortuetan dautza,

Goranzko zoramenaz ahazturik
belar mihiek
gordeleku bila dabilta;
errautsaren iragaziak
irentsi egin ditu
zuhaitzen itzalak.
Honez gero suak ez du
zapiak eraikitzen
eta urari

andra negartiaren eresia ahantzi egin zaio.

Izkinak oro borobil apurtuan.
Bideak, bihurkunez josita,
tolestu egin dira euren estueran.

Gazi tantak ezpainetan,
labain zaporeko laztanak,
hileta dantzan gerri leunak,
samur guztia hezur karraskotsa.

Txipittuz doa dena;
eta aideak
ixten ari den liburuaren usaina du soilik.

Jon Iriberr

BATZOKIA **jatetxea**

**Eguneroko menua
eta karta**

**Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate**

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

* Odontologia orokorra

* Protesi finkoa

* Protesi mugikorra

* Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

■ **ETBren telefonoa:** Hauxe da ETBk hasi berria den denboraldi honetarako ekarri digun berrikuntza. 900-400765 telefonora doan deitzeko aukera, gure galderak, haserrea, eskerrona, eta proposamenak ETBkoei jakinerazteko.

Telefono honen berri irakurri nuenean, deitu egin nuen eta galdera luzatu, aproba egitearren gehienbat. Urrutizkinaren bestaldean, oso harrera ona egin zidan neskak. Nik egindako galderari momentuan ezin zionez erantzun, nire izena eta telefono zenbakia eskatu zizkidan, erantzuna jakin bezain azkar niri deitzeko. Halaxe gertatu zen. Bost minutu ez ziren igaro Ihorretako neskak deitu eta nik itaundutakoa argitu zidanerako.

Ondoren esan zidanez, hiru dira zerbitzu berrian ari diren pertsonak aste osoan zehar, arratsaldeko hiruretatik hasi eta gaueko 11ak arte. Goizez deituz gero, mezuak jasotzen dituen erantzule automatikoa dute. Aitortu zuenez, jende dexente ari da deitzen, galderak egiteko baino, proposamenak luzatzen: ea zergatik ez dituzten bereizten ETB1 eta ETB2, ETB1eko erdal azpitoluak kentzeko, ETB2n euskal azpitoluak ipin ditzatela eskatuz, etab.

Beste herri aurreratuetan hain zabalpen handia duten doanezko zerbitzuen jaiotza ari gara ikusten: Arrasate Press doan, horrelako telefonoak deialde... Oraintxe duzue zuek ere aukera zuen eritzi eta proposamenak Durangokoei luzatzeko. Telefonoa jaso, eta goian azaldutako zenbakia markatu. Zorte on.

■ **Joseba Agirretxea Euskadi Irratitik ETBra:** Irratiko hainbat ahots ezagun ez dugu denboraldi honetan entzungo, maiztasun jakinarekin, behintzat. Hori da Joseba Agirretxea ondarrutarraren kasua. Goizeko bostetan hasi eta bi orduz luzatzen zen "Gauetik goizera" irratsaioa urtebetez hain era dotorean egiten aritu ondoren, ETBra itzuli da "Kalejira" programa aurkeztera.

Orain jakin izan dut bera zela ETBko *Hitz eta Pitz* aurkezten zuena. Harrigarria, zeren hori ez nekielarik, bi irudi desberdin nituen buruan. *Hitz eta Pitz*eko aurkezlea bizia, alai eta urduri samarra iruditzen zitzaidan bitartean, irratikoak askoz ere pausatuagoa ematen zuen. Kurioso da pertsona berberaz bi imajina hain desberdin izatea eta horrek eman dit zer pentsatua. Geroago, zeraz konturatu naiz, bietan erabiltzen zuten hizkuntza ez zela berdina. ETBn euskara batuan hitz egiten zuten moduan, irratian batipat bizkaieraz egiten ebal berba. Jesus Artetxe gazteak ordezkaturako du Joseba irratian. Biei zortetik onena.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Hemen eta munduan:** Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen kasua aztertuko da datorren saioaren erreportaia nagusian. Gaia interesgarria da eta mereziko du ikusteak. Gainontzeko erreportaiak, ohi bezala, Euskal Herria nahiz nazioarteko gaiak erabiliko dituzte. Astelehenean, gaueko 22,15etan.

■ **Frageldarrak:** Umeen munduan hain ezagunak egin diren Sesamo kaleko panpinak, Miss Piggy, etabaren egilearen eskutik datozkigu frageldar xarmant hauek. Telebistako panpinen mundua maite duzuenontzat, primeran igarotzeko aukera. Ume eta ez hain umeak, adi. Larunbatean, 15,10ean.

■ **Azken Txanpa:** Hauxe duzue ETBk iluntzeko albistegien ondoren eskaintzen digun ordu laurdeneko kirol saioa. Astegunero ematen da eta kirol guztiak ukitzen ditu. Xabier Euskitze bertsolari gazteak aurkeztua. Astegunero, 23,40an.

bideoak



100 metro

Saizarbitoriaren nobelan oinarrituta. Paper nagusietan Patxi Bisquert eta Klara Badiola, Alfonso Ungriaren zuzendaritzapean.

Goizeko zortziak dira. 1972ko udaberria. Jon, ETako kidea, Donostiako Alde Zaharreko kaleetan zehar korrika doa, poliziak atzetik dituela.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



O	D	T	A	A	D	A
R	O	A	L	I	N	Z
B	U	T	H	K	N	T
I		A	E	A	A	E
L		R	R	A	A	
A	T	T	R	T	L	D
	Z	A	I	Z	A	A
	A	A		A	Z	R
Z	N	M	N	T	N	R
O	A	E	A	A	A	R
		N				
O	J	T	S	L	N	T
	O	Z	U	U	A	S
	S	I			K	A

										1
										2
									●	3
									●	4
									●	5
									●	6
										7
										8
									●	9
									●	10

Nahaste-borraste

Definizioei dagozkien hitzak asmatu eta idatzi ondoren, lehenengo zutabeen egungo Euskal rock musikalgilerik onenatariko baten izena agertuko zaizu. Eta oraindik nor den ez badakizu, ezaba itzazu alboko koadroan zerorrek igorritako hitzen silabak, eta gure pertsonaia honek lideratzen duen taldearen izena agerian geratuko da

Soluzioa, 21. orr.

- 1- Jolas egiteko balio du.
- 2- Zeruan agertzen den kolorezko arkoa.
- 3- Sua eta kea jaurtikitzen dituen mendia.
- 4- Urrak ematen dituen fruitondo.
- 5- Poza, alaitasuna.
- 6- Zerbaiten seinalea edo marka; oinez goazenean gure oinetakoek uzten dutena.
- 7- Ardiaren kumea.
- 8- Aspaldi, aspaldi dela.
- 9- Maitearekiko hitz goxoa; besarkada.
- 10- Herri bateko agintari gorena.

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Egun gutxi barru erabaki garrantzitsua hartu beharko duzu. Aurretik lasai pentsatzea komeni zaizu, inprobisatzeak ez lizuke emaitza onik emango eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Iraganean izan zenuen arazo bat berriz agertuko zaizu. Horretarako lagunen laguntza oso baliagarria gertatuko zaizu.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Egiten ari zaren ahaleginaren fruituak epe luzera jasoko dituzu, baina ez zaitetz nahigabetu, jarritzea komeni zaizu, helburu hori poz haundiz beteko bait duzu.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Gertatutakoak badu bere alde positiboa eta onartzen baduzu dena errazagoa gertatuko zaizu. Segur aski berriz saiatuko zarela eta, ikasitakoa kontutan izan.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Aste honetan nahi beste indarra gasta dezakezu pilak bete-beteak dituzu eta. Garai ezin hobea duzu proiektuak aurrera eramateko. Ondo aprobetxatu momentua!



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Aspaldi honetan oso ezkor zaude baina, ondo pentsaturik, ez duzu arrazoi berezirik halaxe segitzeko. Zure betiko umore ona errekuperatzea. Beharrezkoa duzu zure betiko umore ona berreskuratzea.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ez duzu besteei entzuteko ohiturarik, baina kasu honetan ondo letorkizuke. Azkenengo erabakia hartzea zeuri bakarrik badagokizu ere, ideiak argitzen lagun diezazuke..



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Bizitzaz gozatzeko duzun trebetasunari esker, beste edozeinentzat arazo bat litzatekeena zuretzat abaintaila izan da. Orain emateko behar duzun pausua badakizu zein den.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Ez zaitetz kezka. Galdu zenuen aukera ez zen uste zenuen bezain ona. Bestaldekik, ibilaldi edo bidaiaren bat egitea proposatzen badizute, baiezkoa eman. Ez zara damutuko




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Zauden egoeran ez zaizu komeni jukutria gehiagotan sartzea, gauzak nahastu egin ditzakezu eta. Egokiena orain arte bezala segitzea duzu, argi ibili eta Fortunari kandela bat-jarri.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Zure esku zegoena egin duzu eta, beraz ez eman buelta gehiago gaiari. Aurrerago izango duzu konpontzeko aukerarik. Dena den, orain behar duzuna lortzeko, bidea landu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Ez hartu besteei dagozkien ardurak, horrela ez duzu ezer lortuko eta. Agian, espero ez zenuen arazo bati irtenbidea emateko behartuta sentituko zara, baina ondo pentsatu esku hartu baino lehen.



EAJ-PNV GARAIA DA



EAJ-PNVko hautagaiak Legebiltzarrerako: Jose I. Elkoroiribe, X. Lasaga, J. L. Txabarri, Nekane Iribar, Antton Market, Luis Bandres, J. L. Arriola, J. M. Bastida eta J. R. Estonba.